

# ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUKO LAGUNTZAILEAREN PROFILA

## Eskakizunak

---

Gutxieneko eskakizunak:

- Erizaintzako Zaintza Osagarrietako Gradu Ertain Teknikoa
- Instituzio Sozialetako Gizarte eta Osasun Arretarako teknikaria edo Pertsonentzako Etxez Etxeko Arreta
- Ziurtagiri profesionala
- Hizkuntza. Euskarako hizkuntza-eskakizuna. Balioetsi egingo da
- Ezinbestekoa izango da lanpostu hutsaren lurraldean bizitzea
- Gutxieneko esperientzia: gomendatu egiten da. Ez da ezinbestekoa
- Hitzarmenaren arabera soldata

## Azalpena

---

**BILBOKO AZTERTZEN ELZ.** Bilboko Udaleko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko erakunde esleipenduna da (2. sorta: Otxarkoaga-Txurdinaga/ Uribarri-Arabella; eta 4. sorta: Irala-Zorrotza-Basurto- Errekalde).

**GASTEIZKO AZTERTZEN ELZ.** Honako honexen erakunde esleipenduna da:

- Gasteizko Udaleko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua.
- Arabako Foru Aldundiko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua: 1. sorta.

**DONOSTIAKO AZTERTZEN ELZ.** Donostiako Udaleko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko erakunde esleipenduna da.

## Lanpostuko eginkizun nagusiak

---

Babesten Taldean, etxez etxeko laguntzaile bila gabiltza, pertsonen etxez etxeko arretan ditugun profesionalen taldea osatzeko.

Honako hauxe izango dute xede, laguntzaileen koordinatzaileen menpean:

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko antolakuntzari dagokionez:

- Zereginen orrian zehaztutako zereginak egitea.
- Erabiltzaileei ELZ ematean sortzen diren gorabeheren berri ematea horretarako zehaztutako formatuan eta koordinatzaile arduradunari haien berri ematea.
- Erabiltzaileen prozesu patologikoak eta intimitateko gaiak isilpean gordetzea.

- Euren jardueraren bitartez sortutako informazioa erregistratzea zerbitzuko koordinazioak adierazitako eta Kalitate Eskuliburuan zehaztutako formatuetan edota tresnetan.
- Oro har, lehenago zehaztu ez diren arren agintzen dizkieten jarduera guztiak egitea, betiere, haien lanbidearen zein prestakuntza teknikoaren arabera badira eta lehenago adierazitakotakoarekin zerikusirik badute.

#### Artatutako erabiltzaileei dagokienez:

Egin beharreko zereginak instituzio kontratugileek ELZren esleipenak arautzeko asmoz zehaztutako baldintzen orrietan islatuko dira.

Oro har, honako hauexek izango dira etxez etxeko laguntzaileen berezko eginkizunak:

##### a) Etxean arreta emateko lan orokorrak:

1. Etxebizitza garbitzea. Egunero garbituko da, teknikari arduradunak zehaztutako premiazko kasu berezietan izan ezik.
2. Arropa zikina metatzea eta, hala badagokio, lekualdatzea, gero Garbitegi Zerbitzuak bildu dezan (egon balego).
3. Etxeko erosketak egitea zerbitzuko erabiltzaileen kontura.
4. Elikagaiak prestatzea edo etxebizitzara eramatea.
5. Erabiltzaileen arropa makinaz garbitzea, berrikustea eta zaintzea.
6. Ustekabeen matxuratutako etxeko eta erabilera pertsonaleko tresnen konponketa txikiak egitea, betiere, espezialistaren batek esku hartu behar ez badu.

##### b) Banakako arretarako lanak:

1. Norberaren garbitasuna: arropa aldatzea, ilea garbitzea eta ohiko higienarako egin behar den guztia garatzea.
2. Norberaren higiea modu berezian artatzea erabiltzaileak oheratuta daudenean eta gerneruari eusten ez diotenean, ultzerarik egin ez dakien.
3. Etxean mugitzen laguntzea eta agindutako sendagaiak hartzen laguntzea. Ohetik jaikitzen eta oheratzen laguntzea.
4. Bisitaldi terapeutikoetara laguntzea.
5. Erabiltzaileen eguneroko bizimoduarekin lotutako agiriak eta errezetak jasotzea eta kudeatzea.
6. Kasuan kasuko koordinatzaileari edozein inguruabarren edo erabiltzaileen egoerako edozein aldaketaren edo erabiltzaileen premia pertsonalak edo etxebizitza-premiak aldatu, larriagotu edo murrizten dituen edozein inguruabarren berri ematea.
7. Behar denean, erabiltzaileei etxebizitzako jarduera arruntak egiten laguntzea inguruan; esate baterako, bilgunera egindako irteerak, senideei egindako bisitaldiak edo aisialdiko jarduerak.

#### Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko langileei dagokienez:

- Laguntzaileen koordinatzaileen menpean dauden langileak direnez, haiekin lan egitea agintzen dizkieten zeregin guztietan, erabiltzaileei ahalik eta arreta onena emateko.

### **Eskaintzen duguna**

---

- Lanaldi partziala.
- Aldi baterako kontratua.
- **AZTERTZEN ELZren eragin-eremuan bertan, Bilbon, Gasteizen eta Donostian.**

**Gurekin lan egin nahi baduzu:**

**Bidali Zure CVa**